# ZAINKETA ARINGARRIEN PAZIENTEENTZAKO ETXERAKO OSPITALIZAZIOKO ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

ORRI HAU ZURE ETXEAN EGONGO DA ETXEKO OSPITALIZAZIOKO ZERBITZUAK ARTATZEN ZAITUEN BITARTEAN,

## LARRIALDIETAN HARREMANETAN JARTZEKO

| Goizeko 8etatik arratsaldeko 8etara |
|---|
| DEITU **945 007080** TELEFONO ZENBAKIRA<br>Eskatu Etxeko Ospitalizazioko (EO) Zerbitzuarekin harremanetan jartzeko, eta adierazi zure izena eta telefono-zenbakia. Lehenbailehen jarriko gara zurekin harremanetan. |

| Arratsaldeko 8etatik goizeko 8etara |
|---|
| EUSKARRI ARINGARRI 94 400 75 74<br>Telefono-zenbaki hori Osakidetzaren Emergentziak Zerbitzuarena da. Adierazi mediku koordinatzailearekin hitz egin nahi duzula, aipatu Etxeko Ospitalizazioko pazientea zarela eta esan zergatik deitzen duzun. |

### UNITATEAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

- Etxeko ospitalizazioa ospitaleko ingresuaren alternatiba bat da. Bizi zaren herriaren arabera, erreferentziako medikua/erizaina taldea esleitua izango duzu, etxean artatuko zaituena.
- EOn zauden artean, norbaitek lagunduta egon beharko duzu beti.
- EO Zerbitzuak artatu bitartean, preskripzio berriko botikak emateaz arduratuko gara.
- EOn zauden bitartean, etxean egingo zaizu beharrezko suertatzen den analitika oro, eta beste miaketa zein kontsulta batzuk Arabako Unibertsitate Ospitalean egitea izapidetuko da, ospitaleratua dagoen edozein pazienterekin egiten den moduan.
- Etxean gauden animaliei eta maskotei buruzko arauak: EOko osasun langileak etxean arreta ematen duten bitartean, animaliek eta maskotek lotuta eta isolatuta egon behar dute.
- Hona hemen EO Zerbitzuaren kokapena:
  - Txagorritxuko egoitza, 5. SOLAIRUA, B eremua.
  - Santiagoko egoitza, 3. SOLAIRUA, PABILIOI ZENTRALA.



Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu artatzen zaituzten profesionalei.